

Euskaltzaindia 1960ko hamarkadan: diktadura frankistako hezkuntza publikoan euskara sartzeko ahaleginak

Antton Ugarte Muñoz

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, doktoregaia

Euskaltzaindiak, azpiratutako herri-hizkuntzaren akademia gisa, euskara eskola-sistema publikoan sartzeko eskariak egin zizkion Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari. Saio horiek talde soziopolitiko ezberdinen, klandestinoak barne, arteko elkarlan gisa gauzatu ziren, betiere diktadurak onar zitzakeen ordezkarien bitartez. 1968an ofizialki abiatutako euskara batua, halaber, eskolaren gisako funtzio formalak egituratzeko plangintzan kokatzen da. Ministerioak 1969an itxaropena piztu zuen arren Liburu Zuriaren argitalpenarekin, 1970eko Hezkuntza Erreformatzeko Legeak mugak ezarri zizkion gaztelaniaz besteko herri hizkuntzen garatzeari.

GAKO-HITZAK: Euskaltzaindia · Diktadura frankista · Eskola publikoa · Euskararen sustapena · Nazionalismoa.

Euskaltzaindia during the 1960's: the attempts to introduce the Basque language into the state school system of Francoist Spain

Euskaltzaindia, as the academy of a minorised language, made petitions to the Education and Science Ministry in order to introduce the Basque language into the state school system. Those actions were carried out with the collaboration of different sociopolitical groups, including the underground, but using spokesmen that could be accepted by the dictatorship. The standard Basque officially inaugurated in 1968, also served as part of the status planning to fill in formal language functions like school. Although the Ministry created great expectation with a White Paper on education in 1969, the following Reform Law of 1970 limited the development of the native languages, other than Spanish.

KEY WORDS: Euskaltzaindia · Francoist Spain · Public School · Basque language status planning · Nationalism.

Jasotze-data: 2014-03-12. *Onartze-data:* 2014-06-05.

1. Sarrera¹

Espainiako Bigarren Errepublika desegin zuen erregimen faxistak, nazio-hizkuntza gisa gaztelania inposatu zuen, gainerako herri-hizkuntzak esparru pribatura mugatzen zituela, lehenago M. Primo de Riveraren diktadurak egin zuen bezala.

Hezkuntzaren alorrean, Estatu Berriaren bortxazko elebakartasun inperialista adierazten da, Gerra Zibila artean amaitu gabe, 1938ko irailean promulgatutako Bigarren Hezkuntza Erreformatzeko Legean: «Es nuestra lengua el sistema nervioso de nuestro Imperio espiritual y herencia real y tangible de nuestro Imperio político-histórico» (*apud* Izu Beloso, 2013: 137).

Bigarren Mundu Gerrak ez zuen, zoritxarrez, frankismoa erorarazi, eta hizkuntzaren alorrean bide beretik jarraitu zen. Hala ere, herri baten adierazpide «politiko-historikoa» izatea debekatu zitzaizen hizkuntza horiei, ikergai filologiko hutsaren atea ireki zitzaizen Espainiako ondare gisa, erregimenaren baldintza guztiekin.

Diktadura frankistak onartutako euskal kultur erakundeen artean Euskaltzaindia nabarmentzen da. Hain zuzen, Gerra Zibilean militar matxinatuen alde egindakoek eraman zuten akademiaren buruzagitza hainbat urtez, bereziki Eliza Katolikoaren aginpidea lehenesten zutenek. R. M. Azkue apaizak, betiereko euskaltzainburuak, agintari frankistekiko lankidetzari esker baino ezin izan zuen Bilbotik akademia berriz abiatu 1941 gorrian, erakunde toleratu gisa, baina inolako izaera juridikorik gabe.

Hura hil zenean, I. M. Etxaide donostiar integristak hartu zuen lekukoa 1951-1962 artean. Ondoren, beste eskuindar katoliko batek jarraitu zion: Jose Maria Lojendiok, Donostiako adingabeen tutoretzako auzitegiaren presidentea. Lojendiok ez zuen akademiaren buru izan nahi, baina gainerako euskaltzainek behartu egin zuten 1963ko apirilean, lojendiotarrek agintari frankisten aurrean zuten ospe intelektualagatik, giro katolikoetan bederen (Torrealdai eta Muru Uria, 2009: 113-120)².

Diktadurak halako berme politikoak eskatzen zizkion ageriko jarduna zeraman erakunde orori. J. M. Lojendio, legegizon gisa, 1954an euskaltzain izendatu zutenetik Gipuzkoako Probintzia Diputazioarekiko harremanez edota akademiaren araudiaz arduratu zen³. Akademia sendotzen eta euskara estandarra bideratzen alferrik saiaturako Txillardegi ETako iheslariak, argi eta garbi, Euskaltzaindia «koldar» eta «Franco-ren morroi» agertzen zela salatu zuen 1963an egindako adierazpenean:

1. Eskerrak eman nahi dizkiet artikulua ebaluatzaileei, Josune Olabarriari eta Angel Zelaietari.

2. Bozketaren emaitza erabatekoa izan zen: L. Dassancek, A. Arruek eta K. Mitxelenak boto bana jaso zuten, eta J. M. Lojendiok, ordea, bederatzi (Satrústegui, 2000a, 83).

3. Julian Lojendio aita, Estatuaren abokatua izan zen diktadura primorriveristan. Gerraondan, Donostiako Conversaciones Católicas Internacionales demokristau-joerakoak babestu zituen, esate baterako, Falange-ren heterodoxia-salaketei aurre eginez (Casas, 2012: 152-154; Intxausti, 2013: 363). Diktadura frankistan Lojendio anaiek ibilbide nabarmenak izan zituzten. Luis Maria, Kanpo Arazoetako Ministerioan lan egin ondoren, beneditar ordenatu zen, baita Santa Cruz del Valle de los Caidos abadia faraoikoaren buru izatera iritsi ere. Ignacio María, Sevillako Unibertsitateko katedraduna izan zen. Miguel Mariak eta Juan Pablok diplomazialari-ibilbide luzeak izan zituzten. J. P. Lojendio oso ezaguna bilakatu zen 1960an, gatazka larria sortu zuenean Kuba iraultzailearekin, Fidel Castoren konspirazio-salaketei aurre egiteagatik Kubako telebistan (De Paz Sánchez, 2006; Lojendio Osborne, 2009; Cava Mesa, 2013).

Sei urte huntan ongi ikusi dut, eta hau borandate onez ari den nornahik ikus dezake, Euskaltzaindia legun-legun eta koskarik gabe moldatzen dela Madrille'ko gobernu etsaiarekin. Zergatik? Euskaltzaindiak, oro har, gehiago begiratzen diolako Gobernuaren aginduari, euskerari baiño (Alvarez Enparantza, 1994: 165).

J. M. Lojendiok ez zuen Txillardegiren dimisioa onartu eta gutunez euskara estandarren arazoa bideratuko zuela agindu zion, baina hori ez zen 1968 arte gertatuko, ordurako beste euskaltzainburu batekin.

2. Euskaltzaindiaren zuzendaritza

Euskaltzaindiaren 1963. urteko azken batzarrean, lotutako agintaldia amaitutzat ematen zuela adierazi zuen J. M. Lojendiok, batzartutako guztiek segi zezan eskatu arren. Ondorioz, batzarrean batzarreko kide zaharrena mahaiburu suertatu zen hiru urtez, eta etorkizun oparoko K. Mitxelenak hartu ohi zuen idazkaritzaren zeregina.

Harik eta, 1966ko abenduan, Manuel Lekuona amnistiaturik euskaltzainburu izendatu zuten arte. Agintari frankistek gerraondoan zigortutako apaiz abertzalea zen, eta horregatik diktaduraren baldintzen lasaitzea sinbolizatzen zuen, nahiz eta Eliza Katolikoaren nagusitasuna gordetzen zen (Torrealdai eta Murua Uria, 2009: 119-122)⁴.

Hala ere, kontrol politikoa ez zen desagertu. Juan San Martin akademiako idazkari izendatu berriaren arabera, kontrol hori erakunde barrutik zetorren, baina ez euskaltzainburuarengandik, baizik eta 1954an euskaltzain izendatutako Antonio Arrue karlistarengandik:

Gipuzkoako gobernadorea etxera joan zitzaion Lojendiori, esanez kontuz ibiltzeko Bilbon Euskaltzaindian kolaboratzen hasi zirenekin, abertzaleak zirela eta politika egiten zutela. Antzerkia egiten zuen talde bat zen, Ziarzolo [sic] idazlea, Arruza eta. Fitxatuta zeuden. Eta itxuraz, gobernadoreak esan zion nork eman zion talde horren berri: Antonio Arruek. Urduri jarri zen Lojendio, beldurtu, eta utzi egin zuen. Eten egin zuen Arruerekin ere (Murua Uria, 1998: 101).

Izan ere, lojendiotarrak ez zituzten erabat onartzen erregimeneko sektore karlista eta falangistek. Bigarren Errepublikan, Euzko Ikaskuntza edota Euzko Ikasle Batzaren gisako erakunde «susmagarrietan» parte hartutakoak ziren. J. P. eta J. M. Lojendiori, CEDAren ildokoak izan arren, jeltzaleengandik gertuegi egon izana leporatzen zieten, Gerra Zibileko errepresio-giroan (Barruso, 1999: 113; Aizpuru, 2012: 95-102).

A. Arruek, bestalde, Errepublikaren aurkako estatu-kolpe faxista aldeztu zuen, baina 1959rako Gipuzkoako Elkarte Tradizionalistaren buru izateari uko egin zion, ez zuelako falangistekiko bateratzea onartzen (Martorell, 2011: 859-860). A. Arruek akademiaren gidaritza karlismoaren menpe jarri nahi zuen, eta euskalgintzan jeltzale demokristauak ikusten zituen lehiakide nagusi, baina baita propagandista

4. 1960an Euskal Herriaren eskubideen aldeko idazkia sinatu zuten 339 apaizen artean, M. Lekuona zegoen. Baita gero aipatuko ditugun J. Gorostiaga edota J. Gaztañaga ere (Esnaola eta De Iturraran, 1994: 254-255).

katolikoak ere. Donostiako *Egan* literatur aldizkarian zuzendarikide izan zuen K. Mitxelena zioenez: «En el fondo, lo que Arrúe no podía tragar era el P.N.V., la democracia cristiana o el catolicismo progresista» (*apud* Ibarzabal, 2001: 149).

Abertzaleak ziren, noski, A. Arruek salatutako M. Arrutza nahiz M. Ziarsolo, besteak beste, Gerra Zibila arte prentsa jeltzalean zaildutakoak⁵. EAJ baztertuta, garaiko egoera politikoan gertatzen ari zen elkarlan ez-naturalaren adibide bitxiak daude akademian. Izan ere, indar politiko berri bat sortua zen euskal gizartean: ezker abertzalea. Federiko Krutwig euskaltzain erbesteratua, *Vasconia* doktrinarioa argitaratzeaz zegoen «Fernando Sarrailh de Ihartza» ezizenarekin, non diktaduraren aurkako borroka armatua aldarrikatzeaz gain, Eliza Katolikoari ez ezik, jeltzaleei eraso bortitza egiten baitzitzaien. Hala ere, F. Krutwigek A. Arrue proposatu zuen euskaltzainburutzarako 1963an gutun bidez (Euskaltzaindia, 1982: 158)⁶.

Espainiako gizartean gertatzen ari ziren aldaketak handiak ziren eta zalantzan jartzen zuten gerraondoan sortutako egitura soziopolitikoa. Opus Dei-ko teknokrata frankistek zuzendutako hazkunde ekonomikoarekin bat, langileen eta nazionalismo periferikoen errebeindikazioak ugaritu egin ziren. J. M. Lojendio 1963ko abenduaren 27an uko egin zionean euskaltzainburu izaten jarraitzeari, A. Arrueren salaketaz gain, agian Katalunian gertatutako istiluak ere gogoan zituen.

Omnium Cultural elkarte berriak ehunka eskaera bildu ondoren katalanaren alde, Espainiako gobernuburuordeari zuzendu zizkion. Diktadurak, ordea, indarkeria erakustaldiarekin erantzun zuen, eta Bartzelonako gobernadore zibilak Omnium Cultural itxiarazi zuen 1963ko abenduaren hasieran. Elkartea ez zuten legezko egingo 1967 arte, Kataluniako bost apezpiku Informazio eta Turismo ministroari eskean ibili arren (Balcells, Izquierdo eta Pujol, 2008: 178-182).

3. Gizarte berri bat: euskararen galzoria?

Euskal Herriak ekonomia-hazkunde ohi ez bezalakoa zuen ordurako. Gizartean gora egiteko aukerak masiboki azkartu ziren. Halaber, jarduera ekonomikoak immigrazio-tasa handia erakarri zuen, EAJren sorrera ikusi zuenaren kidekoa. Eskuindar abertzaletasun klasiko hori klandestinitate luzean higatu egin zen eta, aldi berean, ezker abertzale gaztea sortu zen barnealdean. Joera berri horretan zenbait talde daude (ELA-Berri, Enbata, eta abar), baina ETAK hartuko du indar sinboliko handiena.

EAJren nekaldia, akademian bertan nabari da. S. Aranaren garaitik bizkaierak izan zuen erreferentzialtasuna galduz doa eta konnotazio atzerakoia hartuko du, erdigunea ekialderago jartzen duen estandar baten alde. Gainera, akademiaren azken bi zuzendariak donostiarrak izan dira, eta hileko batzar gehienak, orobat, Donostian egiten dira erdigune geografikoa delako, Bilboko egoitzan egin orde⁷.

5. EAJren *Alderdi* aldizkariak 1964an salatu zuenez, A. Arruek Gipuzkoan zuen boteregunetik N. Etxaniz eta M. Lekuonaren aurka ere egin zuen (Sudupe, 2012: 834-836).

6. G. Arestiren ustez, orobat, J. M. Lojendio eta L. Dassance eskuindarrak ziren egokienak akademiaren buruzagitzarako (Torrealdai eta Murua Uria, 2009: 58-59).

7. Adibidez, 1963. urteko batzar guztiak Donostian izan ziren, Belokeko monasterioan eta Bilbon egindako batzar bana izan ezik (Euskaltzaindia: 1982, 158-172).

Desoreka are nabarmenagoa da kontuan hartuz gero Bizkaiko erakundeek ematen ziotela urteko dirulaguntzaren % 86 Euskaltzaindiari⁸.

Atzetik edo, hobe esan, azpitik bultzaka ari diren idazle eta euskaltzale gazte asko marxismotik gertuago daude, baita euskaltzain izateko bidean ere. Horietako bati, J. M. Torrealdai frantziskotar soziologoak galdetu zionean noiz hasi zen euskal literaturaren indarberritzea eta zein izan ziren faktore eragileenak, Gabriel Arestik labur erantzun zuen: «1955-tik 1960-ra. Bizitza nibelaren goratzea» (*apud* Zelaiaeta, 2000: 202).

Kexuaren antza hartzen zaio, hain zuzen, 1963ko azaroan gertatutakoari. Juan Gorostiaga, Lino Akesolo eta Eusebio Erkiaga bizkaitar euskaltzainek akademia-rekiko harremanak eten egin zituzten, erakundeak hartutako norabidearekin nahigabetuta. Arazoa urte-hasieran egindako izendapen berrietatik zetorren eta hiruron ezinegonak luze joko du. Hala ere, joera politikoen barne-oreka nolabait gordetzearren, akademiaren egituran leku egingo zaie hiruroi, diruzaintzan (E. Erkiaga) nahiz bibliotekan (beste biak) (Euskaltzaindia, 1982: 171; 1968b: 301)⁹.

J. Gorostiaga nahiz L. Akesolo militar matxinatuek zapal dutako elizgizon abertzaleak ziren, eta E. Erkiagak egunkari jeltzaleetan lan egin zuen Gerra Zibila arte. Barne-lehia, bestalde, oso pertsonalizatua dago izaera zaileko Alfonso Irigoien bilbotar gaztearengan, erakundeak pilotzen ari zen botereagatik. Izan ere, euskaltzain oso izateaz gain, erakundeak idazkariorde eta *Eusker*a agerkari ofizialaren zuzendari baitzen ordurako. Bilboko egoitzaren soldatapeko bulegoburua zen eta bertatik akademiaren eguneroko lanaren kontrola zeraman. Idazkaritza, diruzaintza edota biblioteka-artxiboaz gain, euskarazko eskolak eta bertsolari-txapelketak ere, haren eskuetatik igarotzen ziren (Euskaltzaindia, 1982: 158-172; Satrústegui, 2000a: 82-85).

Marxismoaren ildo askotarikoen eta antkolonialismoaren eragin nabarmenaz gain, abertzaletasun berriak euskarari garrantzi berezia emango dio. Hain zuzen, erdaldun immigrazio handiak, euskararen arriskuaren kontzientzia areagotuko du, garaiko testuek behin eta berriz adierazten dutenez. K. Mitxelenak 1959an ohartarazten zuen: «De proseguir el proceso en la misma dirección, se llegaría a la pérdida total» (Michelena, 2011a: 8).

Are Donostiako *El Diario Vasco* egunkari ofizialistak, hainbat adituri galdetu zien ea euskara berehalako galzorian ote zegoen (*El Diario Vasco*, 1964-11-01). Hizkuntzaren egoeraz kezkatuta, euskararen babesa eskatu zuen egunkariak editorialean, aldi berean separatismoaren mamua uxatu nahian:

8. Diruzainak 1967aren hasieran adierazi zuenez, urteko 145.000 pezetatik 125.000 pezeta Bizkaiko erakundeek ematen zituzten: Probintzia Diputazioak, Kultura Batzordeak, Bilboko Udalak eta Aurrezki Kutxek. Gipuzkoak eta Nafarroak 10.000na pezeta ematen zituzten, eta Arabak ezer ez. 1968. urtean, kopuru eta batez bestekoak antzekoak ziren. Erakundeak, milioi erdi pezetako aurrekontua biltzekotan, Diputazioetara jotzea erabaki zuen (Euskaltzaindia, 1968b: 330; 1971c: 217).

9. Abertzaletasun kontserbadoreak ez zituen onesten akademiak zenbait kiderekin (urgazle gazteak, batez ere) abiatzen zituen joera heterodoxoak. J. Gaztañagak elizgizonen partaidetza handiagoa eskatu zion Euskaltzaindiari (*Zeruko Argia*, 1965-12-12).

A este propósito bueno será fijarse en lo que sucede con el gaélico en Irlanda: pese a la creación del Estado Libre hace ya cuarenta y tantos años, que desembocó luego en la independencia total, el retroceso de dicho idioma continúa sin cesar en la isla (*El Diario Vasco*, 1964-09-27).

F. Franco hil ondoren, Euskal Sozialistak Elkartzeko Indarra (ESEI) alderdiko kide izango zen J. San Martinek, orobat, Eibar industriagune euskaldunak zuen egoera gogoratzen zuen. Ekonomiaren nahiz immigrazioaren gorakada handiak argi-ilunak zituen:

Guretzat ekonomikoki ona zen: etorkinak denak pioiak ziren eta espezialistak falta. Ekonomia aldetik ona, baina herria itotzen ari zen toki faltaz. Toki falta eta ezin asimilatu etorkinak. Intentzio bat ere bazegoen: karlistak eta falangistak gutxiengo ziren Eibarren, eta etorkinak ekartzearen alde lan egin zen udaletxetik, lekurik ez zegoela ikusita ere (Murua Uria, 1998: 83).

Horrela, jeltzaletasun ortodoxoan arrazak zuen tokia hizkuntzak bereganatuko du neurri handian, ezkerreko abertzaletasun berrituan. Besteak beste, sabindar arbuioaz bestera, euskal nortasuna ulertzeko eta immigrazioa gizarteratzeko bidea zabaltzen zuen. Bizikidetzeta beti samurra ez izan arren, abertzaleek eta etorkinek bat egiteko aukera izango dute antifrankismoan edota sindikalismoan.

Euskal gizarteak bizitako aldaketak gorabehera, euskal hiztunak gutxiengo izaten jarraitzen zuten. 1970eko datuak dira hauek: % 44,2 Gipuzkoan, % 15,9 Bizkaian, % 11,2 Nafarroan, % 02,5 Araban. Guztira, 533.500 inguru euskaldun, Frantziako mugaz haraindiko 78.400ak barne (De Yrizar, 1981: 217-237). Hala ere, euskaldunen eremu naturala murrizten ari zen aldi berean, erabilera landua- ren loratze itxaropentsu bat gertatzen da.

Eliza Katolikoaren babespean argitaratzen ziren magazin gisako aldizkarietan, adibidez, inoiz ez bezalako erabilera zuen: Donostiako *Zeruko Argia* (10.000 ale zenbakiko), Bilboko *Anaitasuna* (7.000), Nafarroako Foru Diputazioaren *Príncipe de Viana* gehigarria (6.000) edota Baionako *Herria* (4.000). Milaka haur eta helduk ikasten dute euskaraz ikastoletan nahiz gau-eskoletan. Elizbarrutien irratietako saioez harago, telebistaren eta zinemaren eremu ospetsuak atzemanekin ziruditen artean (López-Goñi, 2002: 168-173; Estornés Zubizarreta, 2010: 96-97).

Euskal literaturak, orobat, hiritar garaikidetasuna lortu du. Espainiako Gobernuaren itxuraberritze-saioen artean, 50.000 pezetako Literatur Sari Nazionala sortu zuen euskarazko liburuentzat, eta G. Arestiri eman zion 1968an, antifrankismoak zilegitzat jo ez zuena¹⁰. Hala ere, sari horren ondorioz, Informazio eta Turismo Ministerioak Kriselu argitaletxea legeztatu zuen. T. Meaberen mende hasierako *14 fabulas* berrargitaratu zuen Kriseluk, baina zentsurarekin arazoak izan zituen (Torrealdai, 1999: 63). Galizieraz, euskaraz eta katalanez itzulita zegoen, eta azalean, espainiar identitate plurinazionalaren sinbolo bilakatuko zen poema idatzi zuen G. Arestik: «Cierra los ojos muy suave, / Meabe, / pestaña contra

10. Akademiak «Orixe» izena proposatu zuen sarirako, baina Informazio eta Turismo Ministerioak euskal kultura erbestera-aren sinboloa baztertu, eta nahiago izan zuen «Iparragirre» erromantikoaz baliatu (*Euskaltzaindia*, 1968b: 347; 1971c: 163, 192).

peña: / Sólo es español quien sabe, / Meabe, / las cuatro lenguas de España» (apud Zelaieta, 2000: 149).

4. Eskola publikoa, hizkuntzaren beharrezko eremua

Goi-mailako hezkuntzaz den bezainbatean, Salamancako Unibertsitatean 1952an ezarritako «Manuel de Larramendi» euskara-katedra zegoen, A. Tovar errektorearen nahia (euskal ikasketak Espainian sendotzea) betetzeko. Bordeleko Unibertsitatean R. Lafon euskaltzainak beste katedra bat betetzen zuen 1948tik, A. Tovarrek lehiakidetzat zuena.

Dena dela, curriculumez kanpoko katedra horien eraginkortasunari urri iritzita, Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegia sortu zuen Gipuzkoako Probintzia Diputazioak 1953an, egoera ekonomikoa hobetzearekin bat, K. Mitxelena zuzendari tekniko «entrista» zela (Arrieta Alberdi eta Barandiaran Contreras, 2003: 60-62, 195-196).

Gero aipatuko dugun Opus Dei-koaren eredura, jesuiten Deustuko Unibertsitatean euskara-katedra sortzeko saioa egin zen 1966tik aurrera, Bizkaiko Probintzia Diputazioaren babesarekin, baina azkenean ez zuten 1974ko ikasturtera arte ezarriko, A. Irigoien irakaslea zela (Euskaltzaindia, 1968b: 324; *La Voz de España*, 1968-06-16; Irigoyen, 1976: 57).

Unibertsitate-mailara iristeke, euskararen atzerakadari eskola publikoaren bidez galga jartzeko beharrea adostasun handia zegoen, baita erregimenaren aldeko zenbait ingurutan ere. Haur Hezkuntzaz arduratzen ziren ikastolen isilpeko lan nekezari hezkuntza ofizialaren laguntza gehitu nahi zitzaien. Arazo larriaren bat irakasle tituluen ofizialtasun eza zen, euskara hezkuntza-programetatik kanpo zegoenez.

Adibidez, 1964an Euskaltzaindiak Bizkaiko Probintzia Diputazioaren eskaria jaso zuen Gernika-Lumoko auzo-eskolako irakaslearen hizkuntz gaitasuna epai zezan. Baina Euskaltzaindiak izaera juridikorik ez zuenez, ezin zuen legezko titulurik eman, (Satrústegui, 2000b: 444). Lekeitioko Udalak, orobat, euskarazko eskolak emateko katedra bat zuen, Euskaltzaindiarekin batera antolatuta. Bizkaiko gobernadore zibilak 1965ean irakasleari isuna jarri eta eskolak itxiarazi egin zituen, baina akademiak eskatuta zigorra kendu egin zuen. Halaber, diruzainaren ekimenez, urte berean akademiak Bizkaiko Diputaziora jo zuen auzo-eskoletarako irakasle-lanpostuen deialdietan euskara jakiteak meritu izaten jarrai zezan, 1948tik gertatzen zen bezala. P. Kareaga presidente monarkikoak baiezkotzea eman zien (Euskaltzaindia, 1968b: 305, 307-308; Arrien, 1986: 638-640).

Bestalde, Gipuzkoako Diputazioak 1966an Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzari eskatu zion baimena ematea irakasleei, udalek hala erabakiz gero, eskola-orduz kanpoko euskara-ikastaroak emateko. Irakasle gehienak erdaldunak zirenez, udalek euskara-irakasleak proposa zitzaizketen. Ikuskaritzak aldeko txostena eman zuen, euskararen atzerakada kezkarria geldiarazteko (Arrieta Alberdi eta Barandiaran Contreras, 2003:198).

1965eko abenduan promulgatu zen Lehen Hezkuntza Erreformatzeko Legea, Batxilergora igarotzeko bide zurrunagoa ezartzen zuena, ikastolen lana arriskuan jarrita. Agintari frankistekiko elkarlan pragmatikoa beharrezkoa zen A. Irigoienek ustez:

[H]orrela posible zen hizkuntzaren inguruan eremu zabal baten barrinean bide bat baino gehiagotik zebilen jendea urreratzea edo gutxienez kontra ez izatea eta klandestinitatearen ezinak eta arriskuak ez zigun gehiegi lotzen (Irigoien, 1976, 44).

Akademiaren idazkariordearen jarrera hori kolaborazionistatzat jo zuen zenbait euskaltzainek. Adibidez, egoitzan poliziarekin izandako itaunketa bat zuritu behar izan zuen 1963an, J. M. Lojendio izan zuela defendatzaile nagusia. Akademiaren posizio ahulak, euskaltzainen arteko lehiak eta diktaduraren zelatariek sortzen zuten giro nahasiaren erakusgarri gordina da A. Irigoien «salatariak» aurkeztu zuen agiria: «Galdetu zidan ia politika konturik dabillen tartean eta erantzun nion enekiela, baiña seguru asko nere alde egin zan izentazioa beste norbaiten alde erori dedin alegiñak egiten dirala» (*apud* Satrústegui, 2000a: 83; *cf.* Euskaltzaindia, 1982: 163).

Nolanahi den, J. Berrojalbizek, Bilboko ikastola-zuzendariak, Euskaltzaindira jo zuen laguntza bila. Idazkariordearekin batera, Lehen Hezkuntzako Bizkaiko ikuskariarekin hitz egin zuten, eta ondoren F. L. Ibarra diputatuarekin. Azkenean, presidenteak eskaeraren aldeko dekretua sinatu zuen 1966ko maiatzaean¹¹. Horrela, ekainean J. Berrojalbizek zuzentzen zuen Resurreccion Maria Azkue Ikastola ofizialki estreinatu zen, P. Gurrutxakaren apezpikuaren bedeinkazioarekin. Bilboko Elizbarrutiaren buruak, orobat, eskola elebidunen balio pedagogikoa goraiatu zuen, Vatikanoko Bigarren Kontzilioaren ildoko hitzekin (*Zeruko Argia*, 1966-07-17)¹².

Eliz agintarien euskararekiko jarrera hobeto ulertzeko, hain zuzen, oso argigarria da 1965eko uztailan P. Gurrutxak Bizkaiko gobernadore zibilar bidali zion gutuna. G. Candonek kexua agertu zion Bilboko Herri Irratian euskarazko saiok gehiegizkoak zirelako, programazio osoaren % 2 besterik ez izan arren. Apezpikuak, hura lasaitzeko baino ez bazen ere, frankismoaren herri-hizkuntzekiko estrategia permisiboaren berri ematen digu:

Si existe, de hecho, el peligro a que V. E. se refiere, será únicamente porque hemos dejado en manos de los separatistas un arma, que nunca fué suya. Por eso el peligro debe desaparecer demostrando que el vasco y lo vasco lo utilizamos los españoles para servir España¹³.

Gipuzkoan, bestalde, gobernadore zibilak, 1967ko Lehen Hezkuntzaren Lege berritua baliatuz, legeztaturik ez zeuden ikastolak ixteko agindua eman zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horren ondorioz, probintziako ikastola gehienek (% 68 inguru) Donostiako Elizbarrutira jo zuten babes bila. J. Argia buru zuen

11. F. L. Ibarra ez zuten Diputazioaren buru ofizialki izendatuko 1967ko urtarrilean P. Kareagak kargua utzi arte. Hala ere, F. L. Ibarra ordurako jarduneko presidente ez-ofiziala zatekeen (*ABC*, 1967-01-26).

12. Bizkaian ordurako baziren beste hainbat ikastola, agian ezker abertzaletik gertuago zeudelako, babes politiko-erlijioso ofizialik eskuratu ez zutenak (*cf.* Arrien, 1993: 175-179).

13. Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzian gordetzen den gutun honen edukia A. Zelaietari zor diot.

elizbarrutiaren menpeko egituratze prozesuari jarraituta, 1969an Gipuzkoako Ikas-tolen Elkarte sortu zuten (Fernández, 1994: 212-224).

Diktadurak, hazkunde ekonomikoaren aldiari, gerraondoko zapaltze soziopolitiko bortitza lasaitu egin zuen hainbat legerekin: 1964ko Elkarteen Legea, 1966ko Prentsa eta Inprenta Legea, edota erantzukizun politikoak indultatzeko 1966ko Dekretua. Adierazpide berriak zabaltzen ziren, zelatatuak egonagatik, eta hezkuntza publikoaren alorrean euskararen eskaera egiteko garaia zirudien, legedia berriak erabat zokora ez zezan.

Testuinguru horretan, Bizkai-Gipuzkoako Probintzia Diputazioek abiatu zuten Ekonomia Ituna edo nolabaiteko administrazio-autonomia berreskuratzearen aldeko kanpaina. Prentsan argitaratu ziren aldeko iritziak eta editorialak. 1966ko ekainean, M. Fragak onartu zuen ministro-kontseiluan eztabaidatu zela gaia. Azkenean probintzia biak Gerra Zibiletik «traidore»tzat jotzen zituen atarikoak ezabatuko zuten dekretutik, baina Ekonomia Itunez gabetuta jarraituko zuten¹⁴.

G. Aresti marxistak, ordea, erabat baztertu zuen Ekonomia Ituna Bilboko *Hierro* egunkarian, kapitalista handiei baino ez zielako mesede egiten. Horren ordez, ohi zuen era probokatzailean, Kultura Ituna aldarrikatu zuen 1966ko maiatzean:

[M]e atrevería a proponer que se llevara a cabo un Concierto Cultural de nuestras Diputaciones con los Ministerios que corresponda (Educación Nacional, Información y Turismo, etc.), al objeto de que al costado de toda la cultura castellana de Vizcaya y Guipúzcoa, escuelas, institutos, academias, colegios, universidad, prensa, radio, televisión, teatro, cine, etc., se fomente la creación en euskera (o si es necesario vascuence), de todos los vehículos de culturalización del pueblo, para que nuestra lengua natural y vernácula goce de los modernos medios de difusión que contribuyan a su pervivencia (*apud* Zelaieta, 2010: 249).

5. Euskaltzaindiaren eskaera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari

Hamarkadaren erdialdera, gizartearen bultzadak eta Euskaltzaindiaren itzalak bat egin zuten Espainiako Gobernuari eskaera berriak egiteko orduan. Gizartearen bultzadaz ari garenean, X. Gereñoren gisako ekintzaile posibilista bezain nekaezinak nabarmendu behar dira. Hain zuzen, akademiaren 1966ko ekaineko batzarrean irakurritako X. Gereño urgazlearen gutunean, akademiak Hezkuntza eta Zientzia ministroari egingo zion eskaeraren oinarria ezarri zen (Euskaltzaindia, 1968b: 319-320).

Ondorengo batzarretako eztabaidagai nagusia izango da. Batzorde berezi bat sortuko dute, eta Real Academia Galegak agiriaren kopia bat eskatuko du¹⁵. G. Arestik ministroarekin audientzia exijitu egin nahi zuen, baina Madrilan eman beharreko urratsak erregimenaren hurbilekoen bidez egin ziren zuhurki: J. Oleaga

14. Gorte frankistei itxura demokratikoagoa eman nahi izan zitzaizkionean, A. Arrue ordezkari hautatu zuten 1967-1971 artean. Gipuzkoarrak, gainerako ordezkari karlistekin, Ekonomia Itunaren eta herri-hizkuntzen aldeko lekukotasunezko keinuak egin zituen bertatik, betiere Euskaltzaindiaren 1966ko eskaera ofizialari jarraituta (*La Voz de España*, 1968-06-11; Euskaltzaindia, 1971c: 172).

15. Kontuan har bedi RAG, 1960ko hamarkadan, frankismoak onartutako galegismo «ofizial»aren erakundea zela. Esate baterako, nazionalismo antifrankistak eskatu arren, ez zen arduratu galiziera estandar bat arautzeaz diktadurak iraun artean (Núñez Seixas, 1997: 175-178).

abokatua, J. Zaragueta katedraduna, edota P. Irizar ingeniaria (Euskaltzaindia, 1968b: 320-325).

J. M. Lojendiok zuen prestigio politikoaren erakusgarri, 1966ko azaroaren 15ean, jarduneko euskaltzainburu gisa sinatu zuen M. Lora-Tamayo ministroari zuzendutako gutuna¹⁶. Eskola elebidun publikoaren aldeko neurri zehatzak eskatzen zituen eskari hori erabakigarria izango da, hurrengo urteetan egingo diren saioen eredia izango delako, baita Galizian eta Katalunian ere:

El hecho social que el uso de dicho idioma representa, no tiene el adecuado reflejo en los preceptos y disposiciones de orden legal o reglamentario que hacen relación a la Enseñanza y una gran parte de la población del País Vasco, desea muy fundadamente, se arbitre por vía oficial algún procedimiento que permita el acceso de la lengua vasca a las escuelas y centros de instrucción en general (Euskaltzaindia, 1968a: 267).

Eskatutako neurriek euskara hezkuntza-maila guztietara hedatzen zuten: 1) euskarazko ikastaro eta azterketa esperimentalak ikastetxe publikoetan, 2) Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola elebidun pilotuak, eta 3) euskarazko ikastaroak Irakasle Eskoletan nahiz unibertsitate-mailan. Halaber, akademiaren lankidetzak eskaintzen zen ikastaroak antolatzeke nahiz ikasliburuak pretatzeko, horrek zekarren diru-laguntza beharrekin.

Espainian areagotzen ari ziren diktaduraren aurkako jarrera soziopolitikoaren aurrean, Gobernu frankistak permisibo agertu nahi zuen herri-hizkuntzekiko, kultur arloa nazionalista periferikoaren esku utzi gabe. Dena dela, presioaren lasaitzea, ikusiko dugunez, Lehen Hezkuntzara mugatu nahi zen, hizkuntzaren adierazpide formalagoek gaztelaniaren erabateko hegemonia arriskuan jartzen zutelakoan. Ministerioaren idazkari nagusi teknikoak Madrildik 1967ko urtarrileko gutunean erantzun zuen, hamar urte lehenago ezinezkoak ziren hitzekin. M. Lora-Tamayok akademiaren idazkia jaso eta zegokien zerbitzuei ematea agindu omen zuen (Euskaltzaindia, 1968a: 269).

Gaur ikerketa-taldearen arabera, 1966-1967 ikasturtean Gipuzkoako Lehen Hezkuntza ofizialeko ikasleen % 54,1ek soilik gaztelaniaz hitz egiten zuen, eta % 2,6k soilik euskaraz. Gainerako % 43,3ak elebidun hiztunak ziren, gaitasun-maila ezberdinekoak. Batez bestekoen zehaztasuna gorabehera, gizarte-eskakizun baten adiera garbia zen. Gaur taldeak zioenez, bi ziren hezkuntza elebiduna ezartzeko zergatiko nagusiak: pedagogikoa eta soziologikoa.

Euskaldun hutsak elebitasunera progresiboki igaro behar ziren, ikasketa-prozesua oztopatu barik. Era berean, erdaldun hutsek euskara ikasiz gero, errazago gizarteratuko ziren. Gaur taldearen arabera, Gipuzkoako langile etorkinen % 80k nahi zuen seme-alabek eskolan euskara ikastea. Halaber, inkestako irakasleen % 63 euskara Lehen Hezkuntzan sartzearen aldekoa omen zen. Batez bestekoa harrigarria da, estatu-irakasleen % 53 Euskal Herritik kanpo jaiotakoa eta % 70 erdaldun hutsa zelako (Gaur, 1969: 193-220).

16. Andaluziako Kimika katedraduna 1962an izendatu zuten ministro, eta berak aldatu zuen ministerioaren izena, erregimenaren itxuraberritze teknokratarekin bat zetorrena: «Hezkuntza Nazionala» izateari utzi zion; «Hezkuntza eta Zientzia» bilakatu zen (Baldó Lacomba, 2010: 240).

6. Nafarroako Foru Diputazioa

Militar matxinatuei emandako laguntzagatik, Nafarroako Foru Diputazioak administrazio-maila handia izan zuen diktaduran. Zazpi diputatuz osatutako eskuindar korporazioak autonomia horren bidez, besteak beste, euskararen aldeko ekimenak bultzatu zituen.

Adibidez, Euskara Sustatzeko Atala 1957an sortu zuen Vianako Printzea Erakundearen barnean (López-Goñi, 2002: 152-178). Halaber, 1963an euskal hizkuntza eta kulturaren katedra sortzen lagundu zuen Nafarroako Unibertsitatean, nahiz eta curriculumetik kanpokoia izan, katedraduna J. M. Barandiaran zela (Echaide Itarte, 2006: 12-15).

1965ean, Penintsulako Historiaurrearen Sinposium delakoa Iruñean antolatu zen. VPEren idazkaria mahaiburu zela, sinposiumak mozio bat zuzendu zien «zegokien espainiar agintariei» eta Bordeleko nahiz Tolosako Unibertsitateei¹⁷. Mozioan hezkuntza elebidun publikoren aldeko neurriak eskatu ziren, tradizionalismo politikoa gainditu barik (Maluquer de Motes, 1966: XVI).

1967ko urtarrilean, Foru Diputazioak eskabide horri erantzun zion. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenez, hiru erabaki nagusi hartu ziren: 1) ordutegiz kanpoko euskara-eskolak emango ziren eremu euskaldunean, 2) eskariaren arabera euskal eskolak diruz lagunduko ziren probintzia osoan, eta 3) euskararen ezagutza merituzat joko zen herri euskaldunetako lan-eskaintzetan.

Hirugarren erabakiak muga estuak zituen, probintziako administrazio-lanpostu gehienak Iruñeko eremu erdaldunean zeudelako. Hala ere, beste bi erabakiek Nafarroako ikastolei Diputazioaren babesa eman zieten. Eskaera M. J. Urmeneta diputatuak, VPEk eta Euskara Sustatzeko Atalak aurkeztu zuten (López-Goñi, 2002: 178-181; Izu Belloso, 2013: 320-321).

M. J. Urmeneta, F. Huarte presidentearekin batera, 1960ko hamarkadako nafar industrializazioaren bultzatzaileetako bat izan zen Diputaziotik, karlismoaren sostenguarekin. Akademiak 1966an urgazle izendatu zuen, erakundeon arteko koordinazioa aditzera ematen duena, adibidez gero ikusiko dugun beste Sinposiumaren kasuan, biek 1971n diputatu izateari utzi zioten arte (García-Sanz Marcotegui *et al.*, 1998: 247-259, 266-268)¹⁸.

Herri-aginteen artean, etorkizunean ez bezala, Foru Diputazioak zeraman aitzindaritzaren euskararen aldeko neurrietan. Nafar eskuinak artean berezko zuen euskaltzaletasunaren zantzuak ziren, espainiar identitatearekin bateragarri zirenak. 1967ko abenduan Iruñean egin zenean Euskaltzaindiaren batzarra, gobernadore zibilak aurretiaz onartutako hitzaldia eman zuen F. Huartek:

Nada de esto se opone, como maliciosamente han pretendido algunos, a nuestro concepto de la Hispanidad, tan presente siempre en las deliberaciones de nuestras Cortes aun antes de la unión a Castilla. Porque entendemos que, si bien al

17. 1966an dekretu bidez bi unibertsitate horietan Frantziako Gobernuak ahalbidetu zituen euskal ikasketen berri emateaz J. Haritxelhar euskaltzaina arduratu zen (Euskaltzaindia, 1968b: 323)

18. Nafar erabakiaren berri, hain zuzen, A. Arruek eman zuen akademiaren batzarrean, agian J. A. Zubiaur adiskide karlistaren bidez (Euskaltzaindia, 1968b: 326; Martorell, 2011: 864-866).

romance se le ha dado la denominación de Lengua Española por antonomasia, también son idiomas españoles los que prevalecen singularmente en algunas regiones que han sabido conservarlos y perpetuarlos hasta el presente (*apud* Paredes Alonso, 1993: 615)¹⁹.

7. Espainiako herri-hizkuntzak

Euskaltzaindiak 1966ko azaroan Hezkuntza eta Zientzia ministroari bidalitako gutunak oihartzuna izan zuen. Madrilgo *Cuadernos para el diálogo* aldizkari demokristauan, hezkuntza elebidunaren beharraz hainbat artikulu agertu ziren 1966-1967 artean. Bereziki milioika hiztuneko katalanaren egoeraz arduratzen ziren, literatur hizkuntz eredu eta ekoizpen garatua zuena, euskarak ez bezala²⁰.

Guztiek Vatikanoko Bigarren Kontzilioaren aginpidera jotzen zuten, diktadura nazional-katolikoak ofizialki ezin uka zezakeena. Pedagogiaz den bezainbatean, UNESCOren sona handiko *L'Emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* (1953) txostenean oinarritzen ziren. Horrek ere ofizialki eragiten zion Espainiari, UNESCOren kidea baitzen AEBrekin hitzarmen estrategikoak erdietsi zituenetik (Gaur, 1969: 195-203).

Are erregimenaren instantzietatik, elebakartasun ofizialaren aurkako ahotsak agertu ziren, herri hizkuntzak baztertzeak Espainiaren batasunari kalte egiten ziolakoan. A. de la Serna enbaxadoreak hurrengo iritzi-artikulua argitaratu zuen Madrilgo egunkari eskuindarrean:

[P]reguntémonos los españoles si estamos dispuestos o no a convivir con el hecho insoslayable de que hay en nuestra tierra más lenguas que el castellano. Dispuestos a reconocer la realidad sin encrespamos ante ella, sin considerarnos ofendidos porque delante de nosotros se hablen esas lenguas; dispuestos, en fin, a darle a cada una, en la justa medida de su respectiva importancia, todas las facilidades y los medios que hoy día se ponen al servicio de la enseñanza y difusión de las lenguas vivas: escuelas, libros, periódicos, radio, televisión, cine, etcétera (*ABC*, 1967-02-03).

Akademiak, bestalde, ez zuen Hezkuntza eta Zientziako idazkaritza teknikoaren erantzunarekin etsi, eta ministroaren beraren audientzia eskatu zuen. UNESCOri gutunez eman zitzaion eskaeraren berri, eta erregimenetik hurbilago zegoen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak ere eskaera bideratu zuen ministeriora²¹.

Urrats asko eman ziren Donostian eta Madrilen, diktaduraren erakundeetatik nahiz Eliza Katolikotik hurbil zeuden hainbat lagun eta elkarte tartean zirela: J. Caro Baroja, RAE, P. Irizar edota Real Academia de Ciencias Morales y Políticas. Azkenean, M. Lora-Tamayorekin elkartu ziren, 1967ko irailean, gutxienez hurrengo

19. Euskaltzaindiaren batzar-agiriak, ordea, ez du F. Huarteren hitzaldirik aipatzen (Euskaltzaindia, 1968b: 350-351).

20. Garaiko testuek ez diete inolako izaerarik onartzen Espainiako bestelako mintzaireri: aragoiera, asturiera, okzitaniara, portugesa, arabiera, amazigera, eta abar. Estatuko hizkuntza gutxituen artean ere, diskriminazioa barneratua zegoela erakusten duena.

21. EAEk 1965ean bigarren mendeurrena Azkoitian ospatu zuenean, M. Lora-Tamayo gonbidatu eta ohorezko kide izendatu zuten. Ekitaldian euskara-katedrak ofizialki eskatu zizkioten (Saiz Valdivielso *et al.*, 1993: 57).

kideak: A. Zatarain jeltzalea²², K. Santamaria, J. Zaragueta eta A. del Valle, EA Eren burua (Euskaltzaindia, 1968a: 325-346).

Karlos Santamaria urgazlea, hezkuntzaren alorrean garaiko euskalgintzak egin zituen ahaleginak ongien irudikatzen dituen laguna eta Asociación Católica de Propagandistas delako elkarteko gaitasun handiko kidea izan zen. Igeldoko meteorologia-estazioko arduradun gisa, orobat, espainiar armadako teniente koronela-aren pareko graduazioa zuen 1964tik. Estatus horretatik, hezkuntza publikoan euskara sartzearen aldeko solaskide nagusia izan zen, adibidez, *El Diario Vasco* egunkariaren orrialdeetatik (1968-01-28)²³.

1947-1959 artean, Donostiako Conversaciones Católicas Internacionales direlakoak antolatu ahal izan zituen Kanpo Arazoetako ministerioaren baimenari esker. Bestalde, euskara batuaren aldeko *Jakin* frantziskotar aldizkaria 1969an debekatu zutenean, K. Santamariak zuzenean jo ahal izan zuen I. M. Lojendioren-gana laguntza eske (Intxausti, 2013).

Dena dela, Hezkuntza eta Zientzia ministroa euskal ordezkartzarekin bat etorri omen zen eskola elebidunen beharraz, eta arazo teknikoak baino ez zituen aipatu. Katalunia-Galiziatik, orobat, antzeko eskaerak jaso zituela adierazi zien, Espainiako Gobernuak hezkuntzaren alorrean herri-hizkuntzen nolabaiteko ofizialtasuna onartzera zihoala aditzera ematen zuena, betiere gaztelaniaren nagusitasuna bermatuta (Euskaltzaindia, 1968a: 269-270).

Institut d'Estudis Catalans eta Bartzelonako akademia guztiek 1967ko otsailean bidalia zioten ministerioari katalanaren irakaskuntza ofizialaren aldeko eskaria. IECren lana, hain zuzen, katalan hizkuntzak hirurogei urtean lortutako garapenaren eta nazioarteko ospearen frogaren zuzen²⁴. Espainiako egunkariek 1967ko maiatzean katalan kultur elkarteek Hezkuntza eta Zientzia ministroari zuzendutako idazkiaren edukia plazaratu zuten, pedagogiaz beste, katalanaren prestigioa helduleku zuena (*ABC*, 1967-05-03)²⁵.

Hezkuntza elebidunaren auzia diktadurarentzat gai arantzatsua zela erakusten du Resurreccion Maria Azkue Ikastolaren egoerak. Bi urtez publikoki jardunean egon arren, artean ez zuen Estatuarengandik baimenaren jakinarazterik jaso Aldizkari Ofizialaren bidez. 1968ko apirilean, J. Berrojalbizek eta A. Irigoienek zuzenean Madrilera jo behar izan zuten, Lehen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren-gana. Aipatu zizkieten zailtasunek etsigarriak ziruditen²⁶.

22. A. Zatarain industrialariak 1964ko abenduan Gipuzkoako gobernadore zibilaria idazki bat bidali zion, Estatuak euskara babestu zezan eskatzeko (López-Goñi, 2002: 187-188).

23. Donostiako Santo Tomas Lizeoa (1963rako legeztatua) sortzeaz gain, Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza sailburua izango zen, EA Jren izenean, Espainiako Trantsizioan (Pérez Pérez, 2011; Torrealdei, 2013: 203-217, 236).

24. Konparazione, R. Aramon IECKo idazkaria, Union Academique Internationale-ko nahiz UNESCOko filosofia- eta humanitate-batzordeko zuzendaritzakidea izan zen 1960ko hamarkada osoan (Balcells, Izquierdo eta Pujol, 2008: 160-164, 184).

25. Kataluniatik bidalitako eskariak oihartzun zabala izan zuen, Madrilgo *ABC*z gain, Bartzelonako *La Vanguardia Españolak* edota Donostiako *El Diario Vasco*k jaso zuten berria (Balcells, Izquierdo eta Pujol, 2008: 184-185; Gaur, 1969: 200).

26. A. Irigoienek idatzita utzi zuenez, F. L. Ibarra eta A. Arrue ere Madrilan egon ziren laguntza ematen (Arrien, 1993: 183).

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan gorabehera handiak zeuden. M. Lora-Tamayok martxoaren amaieran dimisoa eman zuen, Espainiako unibertsitateetan gertatzen ari ziren isitilu politiko larriengatik. Opus Dei-ko kide erreformista izan arren, erregimenaren alderdi gogorraren eta unibertsitate-komunitatearen arteko gatazkak gainditu egin zuen (Baldó Lacomba, 2010: 239-244).

Hain zuzen, Madrilen izandako elkarrizketaren biharamunean, J. L. Villar Palasi izendatu zuten ministro berri. Valentziarra ere teknokrata bat zen, ideologiaren lehia estalita, konponbide teknikoak bilatu nahi zituen. Ezustean baiezko telegrama jaso zuten egun gutxira eta 1968ko maiatzean bertan legezkoztat jo zuen Bilboko ikastolaren jarduna Estatuaren Aldizkari Ofizialak (Arrien, 1993: 181-183).

8. Euskara batua eta ezker abertzalea

Euskaltzaindiak literatur euskararen oinarriak aurreratuko zituen 1968ko biltzarrean, akademiaren urrezko ezteietan. Biltzar akademikoaz gain, astebeteko jai-egitaraua antolatu nahi izan zen Oñatin: hitzaldiak tokiko euskalkiaz eta arteaz, haurren eguna, antzerkia, kantak, dantzak, bertsolariak, eta abar. Halaber, Galizia-ko eta Katalan Herrietako hizkuntz elkarteekin harremanetan jarri ziren, Espainiako Gobernuari hezkuntza-alorreko eskari bateratuak egiteko (Euskaltzaindia, 1971c: 184, 193).

Hemen ere gizartearen bultzadak eta akademiak bat egin zuten, bereziki G. Arestiren gisako idazleen irmotasunari esker. Idatziz eskolan, hedabideetan eta noizbait administrazioan erabilgarri zatekeen eredurako hastapen xumeak nahi ziren bildu. Hots, Txillardegi, Euskaltzaindiaren ezintasunaz ernegatuta, Baionako «deserrian» lau urte lehenago bultzatutako erabakietan oinarritutako ortografia, aditz-paradigma eta gutxieneko hiztegia²⁷. Baionako erabakiek zuten ezker abertzalearen marka politikoari zeharkakotasunarena gehitzea falta zen, ordea. Iraganeko zalantzak baztertuta, K. Mitxelena, Salamancako Unibertsitatearen katedradun berria, eginkizunaren arduradun «karismatiko» izendatu zuten²⁸. M. Lekuonak berak eman omen zion agindua 1968ko maiatzean: «Koldo, berehala hartu beharko duzu *horren ardura*» (*apud* Satrústegui, 2002: 325).

Euskarari zabaltzen zitzaion beste eremu garrantzitsu bat Vatikanoko Bigarren Kontzilioaren ondoko liturgia katolikoarena zen. Mezako latina herri-hizkuntzak ordezkatzeko hasi zirenean, euskara erabiltzeko ez ezik, euskara batua ezartzeko eskaerak ugaritu ziren elizbarrutietan, baina baita salaketa antifrankistak ere. Izan ere, Eliza Katolikoaren herri-hizkuntzen aldeko apustua ezin da gainerako gizarte-

27. G. Arestik 1965ean Euskaltzaindiari haserre leporatu zion aurreko urteko erabaki horiek aintzat ez hartzea. Dena dela, Txillardegi 1968ko maiatzean prest agertu zen erabakiok alde batera uzteko, Euskaltzaindiak eginkizun hori bere gain hartuz gero. ETako iheslariaren asmo zintzoa ezin argiago agertzen da erabaki horretan (Satrústegui, 2000b: 445; 2002: 325).

28. Txepetxek, esaterako, garaiko eragile nagusitzat jotzen du: «Porque el bagaje intelectual y cultural de Mitxelena, así como su experiencia vital, eran bastante complejos y bastante representativos de lo que el siglo en el que vivió podía dar de sí y porque él puso al euskera a la altura de ese bagaje, se entiende ahora algo que sin ello no se entendería jamás: el carácter nuclear que a partir de cierto momento su obra y su pensamiento tendrían sobre la vida del idioma» (Sánchez Carrión, 1991: 1.324).

doktrinatik bereizi, hots, botere sozioekonomikotik aldentzeko kontzilio-egitas-
motik, espainiar hierarkiaren jarrera gorabehera²⁹.

Apaiza buru zuen Euskaltzaindiak artean hileko batzar guztiak otoitzarekin hasi eta bukatzen zituen. Bide posibilistari eutsita, literatur euskararen batasunari buruzko agiria 1968ko urrian eman ondoren, euskal apezpikuei liturgia batuaren eskaria egin zien akademiak. Donostiako Elizbarrutiko itzultzaileen lana, euskara batuarekiko uzkurra, onartu zuten Iruñeko eta Bilboko apezpikuek ere, Vatikanok berak ez zuelako testuen hirutasuna onesten. Baionako itzultzaileekin ere elkar-
tzen hasiak ziren (Euskaltzaindia, 1971c: 200-201, 209; Lekuona, 1971).

Diktadurari amaiera antzematen zitzaion eta 1968tik aurrera, antifrankismo izan zitekeen ororen zapalketa gogortu egin zen. Industriako langileen gatazkaz gain, 1968ko ekainean ETAk guardia zibil bat hil zuen lehen aldiz. Akzio-erreakzioaren gurpil zoroan, Gipuzkoako polizia sekretuaren buru torturatuarekin hil zuen ETAk abuztuaren hasieran. Espainiako Gobernuak emergentzia-egoera agindu zuen probintzian berehala, eta errepresio itsua askatu zuen euskal gizartearen, elizgizone-
nen artean ere bai.

Ondorioz, 1968ko biltzarra Oñatiko Unibertsitate zaharrean (artearen Bigarren Hezkuntzako institutua) agerian ospatzea ezinezkoa izan zen. Euskaltzaindiaren abuztuko batzarrean R. Korkostegi alkatea agertu zen, E. Oltra gobernadore zibila-
k ekitaldi publikoa debekatu egin zuela adierazteko³⁰. Akademiaren biltzarra frantziskotarren santutegiko itzal diskretuagora aldatzea iradoki zuen. Jaialdiaz den bezainbatean, atzeratu ondoren, azkenean ez zen egingo emergentzia-egoeraren luzapenagatik (Euskaltzaindia, 1971c: 188-189, 193, 198; Satrustegui, 2002: 326).

Klandestinitatean, Txillardegi urgazlea eta F. Krutwig euskaltzain osoa, ETAre-
n ideologoetakoak ziren, abertzaleak zatitu zituen erakundea. Indarkeria antifran-
kista eta euskaltzaletasun erradikala uztartzen saiatu ziren ETAre-
n V. Biltzarraren kinkan. Euskal nazioari hizkuntza «nazional» bakarra zegokion, eta euskararen egoera dialektala gainditu beharrekoa zen nahitaez. Bion arteko ezberdintasun ideologikoan, ordea, donostiarraren sozialismo antimarkista eta bilbotarraren orduko maoismoa nabarmendu behar dira (Lopez Adan, 2014).

Txillardegiren ekarpena akademiari eta bereziki euskara batuari zalantzagabea da. Euskaltzaindiaren zain egon ordez, Baionan biltzarra antolatu zuen 1964an, literatur euskararen oinarriak ezartzeko. F. Krutwig, bestalde, lapurtera klasikoan oinarritutako euskara ezartzen saiatu zen gerraondotik, eta eragin zuzena izan zuen L. Villasanterengan eta zeharka, besteak beste, G. Arestirengan (Zelaieta, 2000: 161, 184, 193).

Are akademiaren zuzendaritzan gauzak aldatzen hasiak ziren. J. San Martin idazkari berria, adibidez, hazkunde ekonomikoaren ondorioz sortutako burgesia txiki abertzalearen erakusgarria zen. Tornulari lanetan hasi zen Eibarren eta

29. 1969an X. Amuriza urgazlea kide zuen Gogor apaiz taldea espetxeratu egin zuten urte luzetarako, Bilboko Elizbarrutian diktaduraren aurkako gose-greba egiteagatik (Zelaieta eta Jimenez, 2011).

30. Oñatiko alkate zenaren jarrera euskaltzalea ageri da, adibidez, udalerriko kaleak izendatzeko 1965ean akademiari eskatu zion laguntzan (Euskaltzaindia, 1968c: 311).

1958rako inportazioko makineriaren saltzailea zen (Murua Uria, 1998: 81). Handitzen zihoan talde antifrakista horrek bereziki, ETAre jarduna itxaropenez ikusi eta babestu egin zuen. J. San Martinek, adibidez, T. Etxebarrietaren omenezko eresia artean izengabea idatzi zuen: «Idea garbiz jantzia, / Eskaini zuen bizia: / Jaun zerukoak eman dagiola hemen ez den justizia. / Euskal semeok isilik, / Ez gero egin nigarririk, / Haren gogoa bizi den arte, esperantza du Euskadik» (*apud* Murua Uria, 1998: 91)³¹.

9. Herri Hizkuntzen Idazkaritza: galiziera, euskara eta katalana

1968an, urteko azken batzarra Iruñean egin zen berriz ere, eta, Gipuzkoako errepresio-egoeratik ihesi, Nafarroako Foru Diputazio abegitsuagoaren jauregian bildu ahal izan ziren Galiziako, Euskal Herriko eta Katalan Herrietako kultur elkar-
teak. E. Calle Iturrino RAEren ordezkari frankistak nabarmenki huts egin zuen, baina bertan izan zen jaioterriko hizkuntzen ordezkari harrigarria: RAG, Obra Cultural Balear, IEC, Omnium Cultural, Lo Rat Penat, VPE, EAE, Iruñeko Euskal-
erriaren Adiskideak³², JUEFM eta Euskerazaleak.

Arratsaldean elkar-
teak bilduta, Herri Hizkuntzen Idazkaritza bat Bartzelonan sortzea erabaki zuten, Omnium Cultural-eko F. Roda demokristauaren zuzendaritza-
pean. Era berean, hiru puntu nagusiz osatutako agiria sinatu zuten: 1) Euskal-
tzaindiak 1966an Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari egindako eskariari atxiki-
mendua, 2) hizkuntz arazoa Espainia mailan planteatzeko elkarlan-hitzarmena, eta
3) Hispaniar Hizkuntzen Sinposium baterako deialdia. Politika klandestinoa alde
batera utzita, helburua kultur nazio-
gintzari eustea zen, diktadurak ustez onar-
zitzakeen baldintzetan.

Espainiako diktaduraren oinarriko antiseparatismo beligerantearen aurrean, hizkuntz erakunde periferikoak kontu handiz antolatu ziren, erregimenak onar-
zezakeen espainiar identitate konposatu bati erreferentzia eginda. Hispaniar
Hizkuntzen Sinposiuma 1969an Iruñean antolatu behar zukeen VPEk eta landu
nahi zituzten gaiak egitasmo erakargarria adierazten zuten: hizkuntzen egoera,
hezkuntza/hedabideak, hizkuntz legeria, elebitasun-kanpaina, Europa mailako
kasuak, NBE-UNESCO, eta Vatikanoko Bigarren Kontzilioa (Euskaltzaindia,
1971a: 23-26).

Poliki-poliki, zalantza-
z beteriko urratsak ematen ari ziren gaztelaniaz besteko herri-hizkuntzen alde. 1968an sortutako Bilboko Unibertsitatean, curriculumez
kanpoko euskarazko eskola ezegonkorrak antolatzen hasi ziren, baita Deustuko
Unibertsitatean ere. Halaber, Valladolideko Unibertsitateari atxikita sortutako
Donostiako Zuzenbide Fakultateko arduradunekin harremanetan zegoen Euskal-
tzaindia, euskarazko eskolak sartzeko. Bestalde, akademiak babespean hartu
zituen udako euskara-ikastaroak unibertsitate-ikasleentzat. Giro politikoaren
erakusgarri, gobernadore zibilek 1969an debekatu egin zituzten ikastaroak Bizkai-

31. J. San Martinek akademiaren idazkaritzatik egin zuen sustatze-lan dinamikoa, formazio erabat
autodidaktan oinarritua dago, garaiko idazlan teorikoetan ikus daitekeenez (San Martin, 1998: 71-126).

32. Nafar jeltzale zaharrek 1967an sortutako elkarteak, ezkertiar gazteen bilgune ere bilakatuko
zena.

Nafarroan, baina A. Arruek baimena lortu zuen Gipuzkoarako (Euskaltzaindia, 1971c: 232, 224).

Akademiaren 1969ko urtarrileko batzarrean idazkariak jakinarazi zuen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa eskola elebidun publikoak abiatzea aztertzen ari zela. Horretarako, ministerioak informazioa eskatzen zuen euskal kultur erakundeen jardueraz. Euskaltzaindiaz gain, hauek aintzat hartu ziren: monarkikoen zuzendutako Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, EAEn babespeko Aranzadi Zientzi Elkarte eta Euskerazaleak³³ (Euskaltzaindia, 1971c: 204, 206).

Halaber, J. L. Lizundia idazkariorde izendatu zuten, Euskadiko Ezkerra alderdiko kide ezaguna izango zena, akademiaren berritzate politikoaren beste adibide bat³⁴. Euskaltzaindiaren betiereko idazkariorde bilakatuko zenaren arabera, hain zuzen, posibilismoak eta transbertsalitateak bereizi zuten 1960ko hamarkadako euskalgintza hurrengoekiko (Lizundia Askondo, 2004: 629-630).

Idazkariak, bestalde, Donostiako Gaur taldeak egindako inkesta soziolinguistikoaren berri eman zuen, ministeriora bidaltzeko egokia zelakoan. Ikerketa Gipuzkoako Lehen Hezkuntzaren egoera tamalgarria salatzeaz arduratu zen. Irakasleek emandako erantzunetan oinarrituta, inkestaren emaitzak larriak ziren: azpiegitura zaharkituak, soldata urriak, baliabide eskasak, edota irakaskuntza klasista. Hala ere, kontuan hartu behar dira, ekonomiaren gorakadarekin batera egindako aurrerapenak: 1950-1970 artean Gipuzkoako analfabetismoa % 3tik % 0,27ra beheratu zen eta 1970erako % 100eko eskolatzea lortu zen Lehen Hezkuntzan (Arrieta Alberdi eta Barandiaran Contreras, 2003: 184-195).

Así está la enseñanza primaria (1969) liburu mardulak zentsura frankista gainditu zuen, diktadurak ordurako elebitasuna hezkuntzan erabat gaitzesten ez zuelako. Hala ere, liburuko ohar ugari separatistatzat jo ziren eta, Gipuzkoako emergentzia-egoeraren ondorioz, argitaratzea urtebete gelditu egon zen. Gipuzkoako Probintzia Diputazioak, Gaur taldeari diruz lagundu zion arren, korporazioaren izena babesle gisa agertzea ez zuen baimendu, Informazio eta Turismo Ministerioaren presioagatik (Torrealdai, 1999: 96-98).

Gaur taldeko kideetako bat R. Saizarbitoria izan zen, 1966an izendatutako euskaltzain urgazlea. Uste izatekoa da horrek erraztu egin zuela berehala ikusiko dugun Gaur-Euskaltzaindia arteko lankidetzaren. Akademiara gerturatzen ari zen belaunaldi berria irudikatzen zuen, kontserbadoreek errezeloz begiratzen zutena: hogeitaka urte, gipuzkoarra, marxista, euskara batuaren aldekoa, eta iraganarekiko hiperkritikoa. R. Saizarbitoriak berak garaiko giro korapilatsua laburbildu du:

Nahiko donostiarra zen kontu hura, orduan euskalgintzaren pisurik gehiena Donostian baitzegoen, Euskaltzaindia bera barne. Horrez gain, hemen bazegoen

33. Euskerazaleak 1967an sortu zen Bilbon, euskara batuaren aurkako jarrera hartuko zuen talde kontserbadorea. J. Oleaga urgazlea buru zela Bizkaian milaka sinadura bildu zituzten Euskaltzaindiak 1966an egindako eskaeraren alde, eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan aurkeztu zituzten 1968ko urrian (*La Gaceta del Norte*, 1968-10-30).

34. A. Irigoienek postua utzi zuen Salamancako Unibertsitatean Filologia ikasketak burutzearren. Idazkariordetzarako beste hautagaia G. Aresti zen, baina azkenean uko egin zion, J. San Martinek proposatutako J. L. Lizundiaren alde (Euskaltzaindia, 1971c: 205; Irigoyen, 1976: 54-57).

Erregimenaren jendea, baina euskara berea zuena. Esaterako, Arrue zentsorea. Bitxia da, baina Equipo Editorialeko jendea ez zen euskalduna, PCtik zetozen, baina ikusten zuten nazionalismoan zegoen hazi iraultzailea. Gaur taldea ere sortu zuten, eta ni hor nengoenez, zubi lana egin nuen beste euskaldun batzuekin, Arantxa [Urretabizkaia], Arregi eta Sarasolarekin, esaterako. Gero Kintana, Haranburu, Aresti, Lizundia eta beste batzuk hurbildu zitzaizkigun [...] Gogoratu behar da bere garaian gehiengo abertzaleak gorroto zuela Aresti. Eta gehiago esango nuke: espainolizatzen jotzen gintuzten Lur-en neurri batean Aresti gurekin zebilelako. Atera kontuak. Akordatzen naiz nola Rikardo Arregik berak ere ezkutuko harremanak zituen Gaur-ekoekin, bazekielako bere irudia mantendu behar zuela eta komunistekin harremanak edukitze horrek kaltetu zezakeela irudi hori (*Ortzadar*, 2013-12-07)³⁵.

10. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Liburu Zuria

Ez da kasualitate hutsa J. L. Villar Palasi buru zuen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Liburu Zuri gisako *La educación en España* (1969) azterketa orduan argitaratu izana. Liburu Zurian agertzen zen helburu nagusietako bat hezkuntza demokratizatzea zen, aukera-berdintasunaren bidetik. Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren ikasketa-planeko hizkuntz ezagutzaren atalean, gaztelaniaren mende egonagatik, Espainiako Gobernuak herri-hizkuntzak aintzat hartzen zituen lehen aldiz: «La lengua nacional y la iniciación en el conocimiento de una lengua extranjera. En las regiones bilingües se podrán completar estos conocimientos lingüísticos con el estudio de la lengua vernácula respectiva» (Ministerio de Educación y Ciencia, 1969: 213)³⁶.

Aipu labur horrek izugarritzko itzaropena piztu zuen. Idazkaria, Euskaltzaindiaren 1969ko martxoko batzarrean, Herri Hizkuntzen Idazkaritza indartu beharraz mintzatu zen. A. Arruek elkarlana Gorte frankistetara eraman nahi izan zuen, lege-egitasmo baten aurrean zeudelakoan³⁷. Halaber, ikerketa soziolinguistikoko handi-nahi baten berri eman zen, euskararen egoera zehatzaren araberrako plangintza bat prestatu ahal izateko (Euskaltzaindia, 1971c; 209, 212, 217).

Ikerketa hori burutzea Donostiako bi kooperatibari eskaini zitzaizen: Gaur eta Siadeco. Lehenak Gipuzkoara mugatu zuen proiektua, eta bigarrenak, aldiz, Euskal Herri osora, horrek zekarkeen finantzaketa-kargarekin (Euskaltzaindia, 1971c, *passim*). Azkenean Lur argitaletxearen bidez agertu zen *Euskara gaur* inkesta, probintzia osora hedatu ordez, Elgoibar, Errenteria eta Pasaiako datuetara mugatu zen (Gaur, 1971). Hala ere, azterketa interesgarria da hiru udalerriri hiritar, industrializatu eta immigrazio-tasa handikoak hartzen zituelako.

35. R. Arregi urgazleak, hain zuzen, Euskaltzaindiaren geldotasunaren aurrean, helduak euskaraz alfabetatzeko mugimendua abiatu zuen 1966an, bide batez euskara batuaren auzia luzaezinezko bilakatuta. Alfabetatzearena, akademian ezkertiar gazteak sartzeko aitzakia ere bazen, baina zoritxarrez, R. Arregi auto-istripuan tragikoki hil zen, eta garaiko loraldiaren sinbolo orbangabea bilakatu da (Satrústegui, 2000b: 445-446).

36. Gaur taldearen *Así está la enseñanza primaria* (1969) liburuari zentzura frankistak leporatu egin zion, hain zuzen, ministerioaren Liburu Zuria aintzat ez hartzea. Diktadurak herri-hizkuntzen inguruan norgehiagoka hastea erabaki zuenaren frogak (Torrealda, 1999: 98).

37. A. Arruek ordurako 1968ko martxoan adierazi zuen Gorte frankistetako euskal ordezkariak horrelako legegintza-asmotan ari zirela (Euskaltzaindia, 1971c: 172).

Bestalde, Siadeco-ren bi sortzailek, I. Larrañaga eta R. Iruretagoiena apaizek, egina zuten Hernaniko parrokiak (hots, beste hiru udalerrri horien antzekoaz) ikerketa soziologikoa. Hirigintzaz eta demografiak gain, euskararen ezagutza zehazki aztertu zuten, betiere erlijiozko praktikarekin lotuta, baina kontzilio-ikuspegi progresista batetik. Hain zuzen, bi apaizek Parisko unibertsitateetan ikasitako gizarte-zientziak aplikatu nahi izan zituztelako parrokiak, L. Bereziartua apezpi-kuak, Donostiako seminarioan arazo larriak zituenak, parrokiatik «deserritu» egin zituen (Larrañaga eta Iruretagoyena, 1964: 135-149, 326-327, 371; *Itsasondo*, 2010: 9-10).

1969ko apirilean Omnium Cultural-en Bartzelonako egoitzan biltzen da Herri Hizkuntzen Idazkaritza, J. Serra i Estruch ministerioko ordezkariarekin. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak batzorde bat osatu nahi du hezkuntza elebidun ofiziala ezartzeko, eta euskal solaskide gisa Y. Oñatibia jeltzalea, K. Santamaria eta K. Mitxelena hautatuko dituzte (Euskaltzaindia, 1971c: 215-216; Balcells, Izquierdo eta Pujol, 2007: 185).

Euskaltzainburua, K. Mitxelena, L. Villasante eta J. M. Satrustegi, berriro bildu ziren J. Serrarekin maiatzean Zumarraga-Urretxun. Ministerioak, teknikariaren bidez, aldeko jarrera agertzen zuen, hezkuntza publikoan sartzearekiko ez ezik, euskara batuaren berehalako premiarekiko ere. Nafar apaiza erabat harrিতa geratu zen teknikari frankistaren jarrera irekiarekin: «Curiosamente, en un momento de breve sobremesa, llegó a apostillar su condición de catalán para desdramatizar la embarazosa situación de complicidad que flotaba en el ambiente» (Satrustegi, 2002: 325).

Ministerio teknokrataren hezkuntz lege berria ordurako ageriko sekretua zen. Apirilaren 19an euskaltzainburuak, RAG eta IECrekin adostuta, gutuna bidali zion J. L. Villar Palasi ministroari, Liburu Zurian herri-hizkuntzez agertutako irizpidea UNESCOrenarekin batera zezan, tokiko hizkuntzari lehentasuna emateraino:

[E]ntendemos que la enseñanza de la lengua vernácula habría de ser obligatoria para todos los niños nacidos o residentes en una de las regiones nominadas “bilingües”, puesto que los niños en estas regiones, en sus primeros años, monolingües, salvo casos especiales en que el padre y la madre sean de diversa lengua nativa, es decir, que en la mayoría de los casos, la única lengua arraigada íntimamente en el espíritu infantil de las referidas regiones es la vernácula. Los valores de esta intimidad son tan profundos que la pedagogía moderna recomienda sin vacilación, el uso y estudio de la vernácula, como el mejor vehículo para la enseñanza primaria; y aun más, recomienda el uso de la lengua materna, hasta el grado más elevado posible de la formación intelectual, según declaró el equipo de psicólogos y pedagogos de la UNESCO (Euskaltzaindia, 1971b: 109-110)³⁸.

38. Agirian, ezkutatu egiten zen euskaren benetako egoera. Ikusi dugunez, 1970ean euskara ez baitzen ezta Gipuzkoan ere nagusi, are gutxiago Euskal Herri osoan.

11. Aro baten amaiera

1970. urtearekin hainbat alorretan aro berri bati ekiten zaiola ematen du. J. L. Villar Palasik erreforma sakonago bati ekin zion, 1970eko abuztuaren Hezkuntzaren Lege Orokorren bidez gauzatu zena. Jaioterriko hizkuntzei eskolaurrean nahiz Lehen Hezkuntzan leku egin zitzaizkien, baina Batxilergoan, Irakasle Eskoletan eta unibertsitatean itxi egin zitzaizkien ateak, Euskaltzaindiaren eskaera zapuztuta. Hala ere, ikastolek lehen aldiz eskolaurre huts izateari utzi, eta hamalau urte arteko hezkuntzan euskara sartzeko bide ofiziala zuten.

Goi-mailako hezkuntzan antifrankismoak hartua zuen indarra ikusita, uler daiteke diktaduraren jarrera zikoitza. Erregimenaren aldaketa horren aurrean, espainiar identitate konposatuaren ildoko elkarlana zeraman Herri Hizkuntzen Idazkaritza moteldu egin zen. Bartzelonan ez ziren bilera gehiagorik egin, eta VPEk «sine die» atzeratu zuen Hispaniar Hizkuntzen Sinposiuma eta azkenean ez zen egin.

Euskaltzaindiaz den bezainbatean, aldaketak nabariak ziren. Ezartzearen zegoen literatur euskara batua istilu larriak sortzen hasi zen. Are erabaki ortografikoak konnotazio politikodun arazo pertsonal eta korporatiboak bilakatu ziren. K. Mitxelenak, arduradun nagusi gisa, eraso bortitzak jaso zituen, akademiaren babes ofiziala eskatu zuen. Aldi berean, M. Lekuona gutun anonimoak jasotzen hasi zen eta eztabaidak asko garratu ziren 1970eko batzarretan. Euskaltzainburuak, alde batekoen eta bestekoen presiopean, bere burua prozesutik bereiztea erabaki zuen (Murua Uria, 1998: 104-108; Satrustegui, 2002; 327-330).

Azkenik, 1970eko uztailera arteko batzarrean, L. Villasantek, abertzale gisa identifikatzen ez zen «neokatoliko» gazteagoak, ordeztu egin zuen zuzendaritzan³⁹. Arantzazuko Santutegian bizi zenez, erasoetatik urrunago zegoen, eta 1968ko abenduan euskara batuaren eta K. Mitxelenaren aginpidearen aldera agertua zen frantziskotarren hilabetekarian (Villasante, 1968). Egoera normalizatu batean katedradun jeltzaleari zegokiokeen buruzagitza, baina Eliza Katolikoak berme izaten jarraitzen zuen, kanpora nahiz barnera begira. 1970eko hautagaiak ikustea besterik ez dago. Hamaika boto jaso zituen L. Villasantek, hiruna M. Lekuonak nahiz A. Arruek, eta bakarra J. M. Barandiaranek.

Akademia gidatzeko A. Arrueren aukeraren amaiera zen. 1969ko uztailera artean Gorte frankistetan ezezkoa emana zuen, gainerako ordezkari karlistek bezala, F. Francok Joan Karlos printzea hautatu zuenean diktaduraren ondorengo. Errege-nahi karlistak, Espainiatik egotzia, ezkerreko politikarantz jo zuenean, tradizionalista zaharrak aldendu egin ziren (Martorell, 2011: 870). Diktadura, liberalizazio-joerak bertan behera utzita, uzurtzen hasi zen, bereziki ezker abertzaleak zezakeenaren aurrean. 1970eko abenduan Burgosko gerra-kontseilu beldurgarria hasi zen ETArekin hamasei kideren aurka, diktaduraren aurkako aldarria eta erakunde armatuaren ospea nazioartera zabalduko zituena.

39. Honela zioen bere buruzagitzaren testamentu gisako saiakeran: «Barkatuko naute abertzaleek ohar bat egiten badiet: Euskara eta Euskal Herria zinetan maite badute, ez ditzatela horiek beren ideologiarekin uzta. Eta hori, maite duten horren onagatik. Itsu egon behar da uztartze horretatik sortzen diren kalteak eta arriskuak ez ikusteko» (Villasante, 1988: 140).

Euskararen aitortze ofiziala lortzeko Euskaltzaindiaren hurrengo muntzako saioak testuinguru politiko berri batean egingo dira, Espainiako Trantsizioan. Guk aztertu dugun garaian, akademiaren ekintzak pragmatismo handiarekin burutu ziren, diktadurak onar zitzakeen ordezkarien bidez, baina aldi berean klandestinitatean zeuden indar politikoekin elkarlanean. Uneak oso egokia zirudien, Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik keinu positiboak iristen ziren, are euskara batuaren beharrekiko ere. Hala ere, hezkuntza publikoaren alorreko itxaropen horiek huts egin zuten, aldaketak mugatuak izan zirelako. Esan bezala, Espainian erregimen demokratiko formalari ekitearekin baino ezin izan zitzaion heldu hezkuntza elebidun ofizialari.

1970eko hamarkadan, talde politikoen arteko elkarlan euskaltzalea edo «naziogintza biguna» ahuldu egin zen, politikagintza antifrankistak eta ETAK erabateko protagonismoa hartzearekin batera. Polarizazioak «gune grisak» ezabatu eta siglak indartu zituen, batez ere boterearekiko lehia legeztatzearekin. 1960ko hamarkadan, aldiz, alderdi politikoek ez zuten akademia horrenbeste baldintzatu eta gaitasun handiko pertsonalitateak agertu ziren, iritzi politiko aski ezberdinak, are aurkakoak, baina nolabaiteko autonomiaz bideratu zutenak hizkuntzaren auzia: K. Mitxelena, L. Villasante, Txillardegia edota G. Aresti bereziki.

Ikusi dugunez, euskal gizartean gertatzen ziren errotiko aldaketen aurrean, Euskaltzaindiaren zuzendaritza ardura astuna bilakatu zen. Boterean hutsunea egon zen hainbat urtez, M. Lekuonak buruzagitza hartu zuen arte. Nolanahi den, gizartearen eskakizunek aurrera egiten jarraitu zuten eta urgazle gazteen, ezker abertzalearen, ikastolen edota prentsaren dinamismoak gaina hartu zuen ekintza askotan. Euskarak hezkuntzan behar zuen estatusa ziurtatzeaz gain, hura estandarizatzea premiazko bilakatu zen, zeinahi gizarte-adierazpenen tresna bilaka zedin. Bultzada horrek euskaltzale zaharrak iraganean kokatu zituen nolabait, eta aro berri bati bide eman zitzaion.

Bibliografia

- Aizpuru, M. (2012): *Amets baten oinordeko gara, 1936ko Euskal Unibertsitatea = Heredamos un sueño, La Universidad Vasca de 1936*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Alvarez Enparantza «Txillardegia», J. L. (1994): *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, Tafalla.
- Arrien, G. (1993): *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972: beren hasiera eta antolaketa = Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972: sus orígenes y organización*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Arrieta Alberdi, L. eta Barandiaran Contreras, M. (2003): *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, Donostia.
- Balcells, A.; Izquierdo, S. eta Pujol, E. (2008): *Història del l'Institut d'Estudis Catalans, vol. II: de 1942 als temps recents*, Institut d'Estudis Catalans, Secció Filosofia i Ciències Socials, Bartzelona.
- Baldó Lacomba, M. (2010): «La investigación y la enseñanza técnica en el ministerio de Lora-Tamayo (1962-1968)», in V. Olmos (koord.), *Facultades y grados: X Congreso Internacional de historia de las Universidades Hispánicas (Valencia, Noviembre 2007)*, 1. bol., Universitat de València, Servei de Publicacions, València, 239-257.

- Barruso, P. (1999): «El difícil regreso. La política del Nuevo Estado ante el exilio guipuzcoano en Francia (1936-1939)», *Sancho el Sabio*, **11**, 101-140.
- Casas, S. (2012): «Los Cursos Internacionales Católicos de San Sebastián (1935)», *Sancho el Sabio*, **35**, 143-163.
- Cava Mesa, M. J. (2013): «Juan Pablo de Lojendio e Irure (1906-1973). El balcón de las apariencias», in A. C. Moreno Cantano (koord.), *Cruzados de Franco: propaganda y diplomacia en tiempos de guerra (1936-1945)*, Trea, Gijón 241-269.
- De Paz Sánchez, M. (2006): *Franco y Cuba: estudios sobre España y la Revolución*, Ediciones Idea, Santa Cruz de Tenerife.
- De Yrizar, P. (1981): *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 1. t., Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- Echaide Itarte, A. M. (2006): «Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren ibilbidea = Recorrido histórico de la Cátedra de Lengua y Cultura Vasca de la Universidad de Navarra», in M. A. Beguiristain eta A. Barandiarán (ed.), *Cátedra de lengua y cultura vasca: 40 años = Euskal hizkuntza eta kultura katedra: 40 urte*, Universidad de Navarra, Facultad de Filosofía y Letras, Iruñea, 9-29.
- Esnaola, S. eta De Iturraran, E. (1994): *El clero vasco en la clandestinidad (1940-1968)*, I. t., S. Esnaola eta E. Iturraran, Bilbo.
- Estornés Zubizarreta, I. (2010): «Una polémica sobre el vascuence en tiempos de silencio», *Cuadernos de Alzate*, **42**, 92-110.
- Euskaltzaindia (1968a): «Al Excmo. Sr. Ministro de Educación y Ciencia», *Euskera*, **13**, 267-270.
- , (1968b): «Euskal-Akademiaren agiriak», *Euskera*, **13**, 299-351.
- , (1971a): «Reunión de las entidades asistentes a las bodas de oro de la academia», *Euskera*, **16**, 23-26.
- , (1971b): «Escrito al Excmo. Ministro de Educación y Ciencia sobre el “Libro blanco”», *Euskera*, **16**, 109-111.
- , (1971c): «Batzar-agiriak», *Euskera*, **16**, 163-241.
- , (1982): «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak 1949-1964», *Euskera*, **17**, 1-189.
- Fernández, I. (1994): *Oroimenaren hitza: ikastolen historia 1960-1975*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- García-Sanz Marcotegui, A. et al. (1998): *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1931-1984) y de los Secretarios de la Diputación (1834-1984)*, Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior, Iruñea.
- Gaur (1969): *Así está la enseñanza primaria: hablan los maestros*, José Antonio Aguirre Elustondo, Donostia.
- , (1971): *Euskara gaur*, Lur, Donostia.
- Ibarzabal, E. (2001): *Koldo Mitxelena*, Erein, Donostia.
- Intxausti, J. (2013): «Nazioartetik Donostiara. Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián (1935. 1947-[1958]-1959)» in P. Agirrebaltzategi et al., *Karlos Santamaria gaiez gai*, Jakin - Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 329-499.
- Irigoyen, A. (1976): *Sorterriaren alde: ene artearen iturriak eta bizitzako zenbait diztira*, Kriselu, Donostia.
- Itsasondo (2010): «Iñaki Larrañaga: herriko apaiza eta zerbitzaria», *Itsasondo 2.0*, **8**, 8-11.
- Izu Belloso, M. J. (2013): *El régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra*, Euskal Herriko Zuzenbide Historikoa eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioa, Donostia.
- Larrañaga, I. eta Iruretagoyena, R. (1964): *Hernani 1962: estudio sociológico de un pueblo industrial guipuzcoano*, Icharopena, Zarautz.
- Lekuona, M. (1971): «Euskaltzainburuaren hitzak», *Euskera*, **16**, 17-22.
- Lizundia Askondo, J. L. (2004): «Euskal kulturgintza 60ko hamarkadan», *Euskera*, **49**, 609-630.

- Lojendio Osborne, J. B. (2009): «Vida y obra de Luis M^a de Lojendio», *Ondare*, **27**, 151-192.
- Lopez Adan «Beltza», E. (2014): *Biolentzia politikoaren memoriak 1967-1978*, Maiatz, Baiona.
- López-Goñi, I. (2002): *Nafarroa Garaiko ikastolen historia: 1931-1982*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea.
- Maluquer de Motes, J. (1966): *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas: IV Symposium de Prehistoria Peninsular*, Diputación Foral de Navarra, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.
- Martorell, M. (2011): «Antonio Arrue, el carlista que colaboró en el relanzamiento de Euskaltzaindia», *Euskera*, **56**, 847-872.
- Michelena, L. (2011a): *Obras completas: IV, exposiciones generales sobre la lengua vasca*, "Julio Urkixo" Euskal Filologia Mintegia - Gipuzkoako Foru Aldundia - Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia - Vitoria-Gasteiz.
- Ministerio de Educación y Ciencia (1969): *La educación en España: bases para una política educativa*, Secretaría General Técnica, Ministerio de Educación y Ciencia, Madrid.
- Murua Uria, I. (1998): «Juan San Martini elkarrizketa», *Jakin*, **108**, 67-116.
- Núñez Seixas, X. M. (1997): «Idioma y nacionalismo en Galicia en el siglo XX: un desencuentro histórico y algunos dilemas en el futuro», *Revista de Antropología Social*, **6**, 165-191.
- Paredes Alonso, P. (1993): *Félix Huarte: fuentes históricas*, Rialp, Madrid.
- Pérez Pérez, J. A. (2011): «Carlos Santamaría y la nebulosa transición de los vascos a la democracia», in X. M. Nuñez Seixas eta F. Molina (ed.), *Los heterodoxos de la patria: biografías de nacionalistas atípicos en la España del siglo XX*, Comares, Granada, 243-264.
- Saiz Valdivielso, A. C. et al. (1993): *Crónica de cincuenta años (1943-1993): Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País = Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte*, [S.I.], Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- Sánchez Carrión, J. M. (1991): «La herencia de Koldo Mitxelena», in J. A. Lakarra (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1317-1334.
- San Martin, J. (1998): *Euskararen ostarreak*, Erein, Donostia.
- Satrústegui, J. M. (2000a): «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1962-1963)», *Fontes Linguae Vasconum*, **83**, 81-112.
- , (2000b): «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1964-1966)», *Fontes Linguae Vasconum*, **85**, 441-467.
- , (2002): «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1967-1976)», *Fontes Linguae Vasconum*, **90**, 323-352.
- Sudupe, P. (2012): «Antonio Arrue: Euskaltzaindiaren eta Francoren erregimenaren laguntzaile», *Euskera*, **57**, 823-838.
- Torrealdai, J. M. (1999): *La censura de Franco y el tema vasco*, Fundación Kutxa, Donostia.
- , (2013): «Karlos Santamaria eta (euskal) kultura», in P. Agirrebaltzategi et al., *Karlos Santamaria gaez gai*, *Jakin*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 181-244.
- Torrealdai, J. M. eta Murua Uria, I. (2009): *Euskaltzaindia: ekin eta jarrai*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Txillardegui (2004): *Euskararen aldeko borrokan: euskalgintza eta euskalaritzako idazlan hautatuak, 1956-1983*, Elkarlanean, Donostia.
- Villasante, Fr. L. (1968): «Hacia el vasco común unificado», *Aránzazu*, **467**, 337-340.
- Villasante, L. (1988): *Euskararen auziaz*, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñati.

- Zelaieta, A. (2000): *Gabriel Aresti: biografia*, Susa, Zarautz - Iruñea.
- , (2010): «Gabriel Arestiren etxea *Hierro* egunkarian», *Bidebarrieta*, **21**, 241-250.
- Zelaieta, A. eta Jimenez, E. (2011): *Zamorako apaiz-kartzela: Eliza eta Estatuaren presondegia (1968-1976)*, Txalaparta, Tafalla.

